

Donostiar ospatsuak

## SARIEGI'TAR ERAIMUNDA

Gaztelubide, Sarriegui egintzetako oituren jarraitzele dan donostiar Bazkunari,

Ureteroko oni dagokion bez, bere errietan Donosti'ko gora-bera zar ta berriak agertzea deritzagu onen. Berriak guzian aurrean diria zarrak edestearen bearra arkitzen degu. Zenbat donostiar ote dira bere jalotze-rrien edesti apurrrik ez dakienak!

Len-lenengo erri-edesti iturburura ez goaz oraingoz. San Sebastián, Donosti uts zan garairat<sub>o</sub>, besterik ez degu eldu nai. Askoren ustez urrutietako intxaurrak izango ditugu auek; orain bizi diran donostiar artean inork ezagutu ez dituan garaiak. Bañan ez da orrelakorik. Gure gaurko edestiari buruz, larogei urte mugara atzeratzea besterik ez degu egingo. Eta zer dira larogei urte erri baten edestian? Izadiari begiratu, gutxi.

Jaurari eskerrak, larogei ustetik gorako zar osasusu asko daudez oraindik Donosti onetan. Galdetuzte aurretako balzuri, garai artako Donostia zer zan. Ene! —bere erantzuna— oraingoaren itzurik etzuan beintzat.

Ba, guk, orduko zertxobait idazkietan asterturik, garai artak<sub>o</sub> donostiar seme zintzo, jator, erriko! bat ospatu nai genduke. Erriaren poztill<sub>e</sub> izan zana; bere eres! alai, jostalariakin, erri-miña ta erri-maitasuna sortu zuznaren izen ezin azua: Sarriegi!!!

Edestera goazen urte aletan, 1861 gnean, Donosti'ko jaiak zirala-ta kale guziak erriko semex gafeska zeuden. Bertako seme batek, guzian jostaketa alafirako, eres! erri-ko! zaratazale bat sortu zuan.

Lendik, burni, egur, citze, sartagi, sofua zezaken ontzi guziaren burrundaraz, jendea lorik gabe gaua iparozteko oitura zuten jai aletan.

A zer sofú jotzea! Ur<sub>a</sub> gaztearen sasola! Sofú-eres! maitakorrik etzan izango; baña zarata, oia ta zalapar-ta bai beintzat. Zenbat eta gogorrago orduan eta ospe aundiago.

Zarrak nalgabetuta artuko zituztela usteko dezute; gaixoak ere gelago minduk<sub>o</sub> zirala... Okerreko bidetik zuen ustek! Zarrak sofú alek entzutean, igarotako gaztediaren oroiz, pikortu ta berriz gasterik arkitzen ziran; gaixoaren sendakirik onena orduko dumbotsa.

Baña goazen arira: Sarriegi'tar Erraimunda koxkero jatorra gendun eta enskel oituretako eres!ak maitasunetz<sub>o</sub> odol irakitean jartzen zuan. Ogel urte inguru silaririk, oituretako zarat<sub>a</sub> otzak esnatuta, "Tamborrada" izene-nakin ezagutzen dan eres!a sortu zuan. Eta orduko bazkunak danbor otsez, eres! orrekin alaitzen zituzten Do-nosti'ko jaiak.

Artean, Donostia, arrizko itxituraz estatuta zegan. Bederatzi mila bixtanle besterik eteltuan izango. Erri txi-kitan bezela, guziak ezagunak, gelnak elkar maite. Guda mutillak arrizko estuntzaren atzetan. Txoriak kalolan ba-ño azkatasun gelago etzuan donostiarrek bere errian.

Igandetan, San Martin auzoan, Uulig bidean edo Anoet<sub>a</sub> baserrian sagardoa zala-ta, erri'rik irtenik etxera-tzerakoen, goiz joan bear. Erriko ateak goiz ixten bai zi-ran! Etegon gerogo sartzerik. Eta guda mutillen deada-rra bildurgarria berez: ¡Alto, quién vive! entsuten za-nean, apal-apal bere burua agertuz izena ere agerian jarri bear eta au nai ezik igesari ematez onena. Eta au-soko sagardoak deitzen eta auzoak urrutil...! Orduan egi-ten ziran mamakin...

Sarriegi'ren "Tamborrada" lenengo aldiz entzun-arazi ta laxter etorri zan donostiarren azkuden. Andik bi urtera, 1863 gnean, orduko endore zan Amilibia jau-nak, xillaretz<sub>o</sub> palanka batez lenengo arr!a kendu zuan. Gerotik<sub>o</sub> donostiar endoreak, sendat lenengo arr! jar-tseak egin ote dituzte!

Ausi zan arrizko estuntza, begiak urruñerañoko bi-de zabala arki zageten. Donosti berri bat sortu zan or-dukik Azkatasuna Zerloneko izena.

Kendu zituzten guda mutillak. Sagard<sub>o</sub> zaleak edo-zein ordutan erri'ratu zituzkien. Azkatasun osoa Donosti'an. Gerotik zenbat bistanletan gelagotu ote gure erri au? Bañan, erri'ko semeak; biotz<sub>a</sub> eskuan dezutela erantzun; Onerako al<sub>a</sub> txarrerako...?

Eldu daigun ariari berriro.

Zezen suskoa ta soka-muturra ziran orduko oitura-rik berezienak eta gure Sarriegi'tar Erraimunda, onetan ere etzan lo egon. "Iriarena" ren danbor-jotzeko eraketa berak sortu zuan.

Alaitasun bidetik beti gure gizona. Euska! Pedeg Baz-kunak egin oi zihuan jaletan, bere itrebetasun<sub>a</sub> ederki agertu zuan. Abestalde bat, ogei abeslari ingurukin sor-turik, "Illunabarra", "Ume eder bat" eta beste zenbait olako abesti erakutai zituian.

"Petra sardin saltzalea" ta "Pasaien" bi antzerti erestuak ditugu. Eres!a gure Sarriegi'rena. Etzan ordea antzerti lanetan sartut<sub>a</sub> beste gabe gelditu. Kalacetan, batez ere inauterietan donostiarrek izugerriz<sub>o</sub> jaiakegi-ten zituzten. Ordako zaletasuna abestaldeagan misentzen zan eta orretarako egin zituian "Jardineros", "Caldere-ros", "Los habitantes de la Luna" eta dantsarako "Inu-deak" eta "Artzainak". Kalea-lake ibiltzek<sub>o</sub> beste eres! batzuek ere egin zituian garai artan. Tamala egiz, guziak erdel izkera damakitela! Geur, garai artan baña eus-kor<sub>a</sub> gutxigo itzegiten ba'da ere, apur bat dakigunok, ez ote degu gelago maite? Bai bear beintzat. Bestela joan da gure izkera!

Sarriegi'ren abesti eres!ak guzian ezagun ditugu. Ez dagokigu guri berak goraltzea. Xamurrak, bigunak, ikast-erezak izanik, donostiar sendi jatorretan umetxoak ere or dabilkite.

Ertilari onen egintza, erriak maite du ta egintze-kin bere izeng ere.

1913'gn, urtean, irurogei ta amairu zituala, sofia zar ta biotz<sub>a</sub> gazte, une bateko gaixo-aldi zeñen batek eraman zigun. Gogoan daukat oraindik egun aletako ne-

garra. Donosti'ko bazkun guziak bere illetara agertu ziran.

Donostiarren negarra egisko<sub>3</sub> zan, Erriko seme zintzo bat, beretzat alaitasuneko biotza opaidu ziona, joan zitzaigun.

Idazle guziak gal onetas jardun ziran. Orduko esan guziak egertzetan lize joango litzaziguke; bafia batzuek jarri nai genituzke. Artola idazleak, "Euskal-Erria" ille-rokoan egertu suatiak onela zion:

**Sarriegi zanari.**

Il zera! Bafia zeru garbian  
maude betiko gozatsen,  
singeruakin Jaumarentzako  
kenta poltik kantatsen;  
O! Zer zorion peregabeen  
zeraden bada arkitzen  
eta gu emen naigabeturik  
mallo saminak ixurtzen.

Eta Ganboa, its neurtuetan ain jator agertzen zitzaigun oierkariak beste au eratu suan:

Loretetia bezin ornitsu  
zere seaska maitea,  
Inesaterien kondaira dalik  
koekntarraren dotia,  
Eunki ontan zu festatzeko  
Uriak zeukan ustia!  
Isaerako erak nai esa!  
Zer egingo da! Trixtia...

Laburtzaren omenez idazki au amaltu bearrean gerra; bafia ien. Sarriegi'ren oroitzagatik, oraindik bizi diran bazkune; eskari bat egin bear diotegu.

Donostia berez, euskal kutsuz ta barruko mamia, jatorrizko euskalduna zan Donostia, igesean joan zaigu. Beste erri aundi zabal bat dago dere lekuan; bafia donostiar jatorrak gure oiturel euzal bear diotegu, beste la kanpokoemak zapalduko gaituzte. Ez dakigu orain-tzen ere esan samin au ez ote dan egi!

Donosti'ko bazkun bertako jatorrizkoak: Eldu erri-ko antxin oitarari!

Orrugatik eskeñil diogu gure lan txiro au Donosti'an oraindik, lengo erako lanari eusten dion Gaztelubide'ri, biotzen.

ZUBIMENDI 'tar Joseba.

# Casa Mauri

## Mauricio Echániz

Colchonería y Muebles

Fermin Calbetón 42



- Teléfono 1-27-24 -

SAN SEBASTIAN

Almohadas, Borrás, Miraguano, Comedores, Dormitorios, Relojes de pared, Despertadores, Edredones, Mantas de Lana, Aparatos de luz, Alfombras, Coches para niños, Colchas, Ropa blanca, Imágenes, Objetos para regalos, Cubiertos, Trajes (a medida), Abrigos (a medida) y Gabardinas (a medida).



VARIEDAD DE ARTICULOS  
VENTAS AL CONTADO  
Y A PLAZOS